



EBAZPENA, 2020ko apirilaren 24koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 4. proposamena onartzen duena, proposamen horri alegazioak aurkezteko epea irekitzen duena eta borondatezko aitortpena aurkezteko modua ezartzen duena, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko uztailaren 2ko Aginduaren bidez deitutako beka eta laguntzen prozedurarekin jarraituz (2019ko uztailaren 11ko EHAA).

Unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-beken gastuak ordaintzeko laguntzak eta 2019-2020ko ikasturtean errendimendu handiko unibertsitate-ikasleei ezagutza eta saria emateko bikaintasun akademikoko beka deitzen dituen deialdiak, Hezkuntza sailburuaren 2019ko uztailaren 2ko aginduak (2019ko uztailaren 11ko EHAA), 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, unibertsitate eta goi ikasketetako zentro bakoitzeko Aukeratze Epaimahaiek dute beka eta laguntzak emateko edo ez emateko proposamena Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza honi egiteko funtzioa.

Unibertsitateek eta goi ikasketetako zentroek proposamen horiek bidali ondoren, beroriek onartzeko tramitea gauzatu behar da (proposamen huts izaten jarraituko dute), argitara ematearen ondorio bakarretarako (jakinaraztearen ondorioetarako); 10 laneguneko epe bat irekiko da, interesatuta dauden pertsonak proposamenari alegazioak egiteko edo nahi duten dokumentazioa matrikulatuta dauden zentroko Aukeratze Epaimahaian aurkezteko (deialdiaren 37. artikulua).

Martxoaren 14ko 463/2020 errege dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak, hirugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean xedatutakoaren arabera, eten da kontatzeko hamar laneguneko epe hori.

Dena den, deialdiaren 37. artikuluan 4. eta 5. ataletan xedatutakoaren arabera, badaude prozedurak, alegazioak egiteko hamar eguneko epea agortu behar izan gabe, jarraitzen duen bi egoera: 4. atala (onartzen duela espresuki adierazten du interesatuak eta datu edo dokumentazio berriak aurkezteari uko egiten dio) eta 5. atala (interesatuak alegazioak aurkezten dizkio proposamenari). Horregatik, egoera horiek gertatzen badira, epeen konputua egiteko 463/2020 errege dekretuak ezartzen duen etenak ez dio deitutako prozeduraren jarraipenari eragingo, ezta, beraz, prozedurari amaiera ematen dion eta beka edo laguntza eman edo ukatzen duen ebazpena emateari ere.

Aipatutako egoeretakoetatik bat bera ere gertatzen ez den kasuetan, hamar eguneko epeak bukatu arte itxaron behar da prozedurari bukaera emango dion ebazpena emateko, ondorengo egoeran izan ezik: 463/2020 errege dekretuak hirugarren xedapen gehigarriaren 3. atalean espresuki zehazten duenez, interesatuak du epea ez etetearekin eta, beraz, prozedurak jarraitzearekin ados dagoela adierazteko eskubidea. Horri esker, deialdian kontuan hartutako egoeretan ez dauden pertsonak ere dute, epea agortu behar izan gabe, prozedurari amaiera emango dion ebazpen bat lortzeko aukera.

Ebazpen honen bidez deialdiaren 37. artikulua betetzen da eta horretan interesatuta dauden pertsonak errazago baliatu ahal izango dira 463/2020 errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. atalean jasota agertzen den eskubideaz; izan ere, prozedurak jarraitzeko oniritzia aurkeztu ahal izango dute, konputua etena dagoen hamar laneguneko epea agortu behar izan gabe.

Arestian azaldutakoaren arabera,



Nahi izanez gero, J0D0Z-T22FV-2XC8 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T22FV-2XC8 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>



EBAZTEN DUT

Lehena.– Ondoren aipatzen diren ondorioetarako onartzea Hezkuntza sailburuaren 2019ko uztailaren 2ko aginduak (2019ko uztailaren 11ko EHAA) deitzen dituen bekak eta laguntzak emateko eta ukatzeko 4. proposamena; izan ere, unibertsitateek eta goi ikasketetako beste zentro batzuek bidali dute eta ebazpen honen I. eranskinean agertzen da.

Onarpena ondorio hauekin egiten da:

- a) Proposamena jakinaraztearen ondorioetarako, deialdiaren 37. artikularen 2. atalean adierazitako bitartekoen bidez argitara emanaz. Proposamenaren xehetasunera sartzeko, Eusko Jaurlaritzaren beken aplikazioan kontsultatu beharko du bere espedientea interesatuak.
- b) 10 laneguneko epea irekitzearen ondorioetarako, egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, alegazioak eta datuak edo dokumentuak interesatuak matrikulatuta dauden zentroko Aukeratze Epaimahaian aurkezteko (deialdiaren 37.3. artikulua).

Bigarrena.- Deialdiak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesatuarengan ondorengo egoeretakoren bat gertatzen bada, ez da aurreko atalean adierazitako hamar eguneko epea agortu beharko prozedurak jarraitzeko eta prozedurari bukaera emango dion emateari edo ukatzeari buruzko ebazpena emateko:

- a) Proposamena onartzen duela espresuki adieraztea eta datu edo dokumentazio berrak aurkezteari uko egitea.
- b) Proposamenari alegazioak aurkeztea.

Halaber, 463/2020 errege dekretuak hirugarren xedapen gehigarriaren 3. atalean zehaztutakoaren arabera, prozedurak jarraituko du eta laguntza emateko edo ukatzeko behar den ebazpena emango da, interesatuak epea ez etetearekin ados dagoela adierazten duen kasu guztietan.

Hirugarrena.- Goian aipatutako egoeretan borondatez beren eskubideaz baliatu nahi duten pertsonak,- ez dute 463/2020 errege dekretuak hirugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean zehazten duen epeen konputuaren etetea indarrean ez egon arte zain egon behar,- ondorengo aukeretakoren bat erabili beharko dute:

- a) Proposamena onartzen dutela espresuki adieraztea eta datu edo dokumentazio berria aurkezteari uko egitea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren beken aplikatzailean duen espedientea erabili beharko du, "proposamena onartu" aukera markatuz.
- b) Haren erdua ebazpen honen II. eranskinean sartzen den aitortza bete eta bidaltzea, beka-espedienteari gehitzeko. Erantzukizunpeko aitortza posta elektronikoz helbide honetara bidali behar da: uni.ikasketak@euskadi.eus.

Alegazioak aurkezteko eskubideaz baliatu nahi duten pertsonak,- alarma-egoerak bukatu aurretik aurkeztu dituzte alegazio horiek,- ez dute goian adierazitako aukeretatik



bat bera ere erabili behar, deialdiaren 37.5. artikuluan espresuki jasota agertzen baita prozeduraren jarraipenak.

Laugarrena.- Aurreko atalean adierazitako zirkunstantzietan ez dauden pertsonen izango dute alegazioak aurkezteko eta datuak edo dokumentuak matrikulatuta dauden zentroko Aukeratze Epaimahaian aurkezteko eskubidea (deialdiaren 37.3. artikulua), hamar laneguneko epean, 463/2020 errege dekretuak hirugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean dekretatutako epeen zenbaketa-eteteak indarrean egoteari uzten dionetik kontatzen hasita.

Bosgarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarkitaulan, <https://euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/resoluciones> web helbidean, eta Hezkuntza Sailaren web orrian, <http://www.hezkuntza-ejgv.euskadi.eus>, argitara eman dela interesatuei jakinarazteko, SMSren edo posta elektronikoaren bidez bidaliko zaizkie abisuak. Abisu horiek ez dituzte jakinaraztearen ondorioak inolaz ere izango, argitara emanez gertatuko baita jakinarazpena.

Vitoria- Gasteiz, 2020ko apirilaren 24a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria